

Piztu gogo, piztu energia, piztu konpromisoa, piztu herria... Bizi bizi euskaldunak plazaren erdigunera, elkar ezagutzera, elkar babestera eta elkarrekin gozatzera. Gure hizkuntzaren sua piztera gatoz berriz. Gaur ospatzen dugu eta **Aiaraldeko Euskararen Eguna!**

2016an aterkipean abiatu genuen bidea, eskualdea euskararen hariarekin josteko guraz. Eta hala egin dugu bidea: Amurrio, Urduña, Laudio, Orozko, Luiaondo, Arakaldo, Artziniega, Arrankudiaga-Zollo eta gaur, aro baten azken geltokia: **Okondo.**

Altxor asko dituen herria, baina bereziki, gogoan ditugu herriko euskaldunak, **egunero hauspotzen dutenak Okondon euskararen sua.** Biba zuek!

Mila esker gaurko jaia prestatzen bidelagun izan zaituztegun guztioi eta gaur lanean zareten guztioi. Baita Okondoko Udalari eta Eskualdeko gainerako udalei ere.

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak hamar urte beteko ditu 2026an eta **inoiz baino ekimen gehiago esku artean baditugu ere, baliabide faltak itotzen gaitu.** Finantzaketa da erronka eta hor, instituzioei **inplikazioa** eskatzen diegu. Gure hizkuntza eta komunitatea bidegurutze batean dago. Pizkundearen alde arraun egiteko eskualdean **pieza garrantzitsu bat garela** uste dugu fermuki.

Gaur ospakizun eguna da eta horretarako egitarau betea dugu aurretik. Komunitatea batu eta euskara bultzatu, elkartu eta elkar ezagutu, konplizitateak josi eta aktibatu. Euskararen sua piztu eta bere inguruan goza dezagun!

Piztu euskara!

Euskaraktibatu!